

Eskoletan ilunpean dagoen ikasgaia

Gure eskoletan sexu heziketa oso mugatuta dago. Ordu kopurua mugatua da, instituzioen parte-hartzea ere bai eta legeriak ere ez du laguntzen mugak gainditzen, alderantziz.

Sexologoek ahal dutena egiten dute, baina garbi dute zer egin nahi duten: haurrak sexuetan hezi.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |

MUGAZ ALDE BATEAN zein bestean, sexu heziketa mugaz inguratuta dago. Frantziako Estatuan eta, beraz, Ipar Euskal Herrian, sexu heziketa eskola curriculumaren parte da 1973tik. Baina, orotara, ikasleek 30-40 orduko prestakuntza jasotzen dute derrigorrezko

hezkuntza osoan. 2013ko irailean gobernu zentralak *les ABCD de l'égalité* (Berdintasunaren ABCD) programa abiarazi zuen eskolan genero estereotipoak ahultzeko asmoz. Dena den, ez dirudi iritzi publikoa sexu prestakuntza indartzearen alde dagoenik. Duela zazpi



TXANTXIKU IKASTOLA

Oñatiko Txantxiku Ikastolako LHko 4. mailako haurrak sexu heziketa lantzen.



LOMCEk Espainiako Estatuko hezkuntza curriculumetik sexu heziketaren arrasto oro ezabatzen du. Kontua da, hori baino lehen ere, sexu heziketak eremu urria eta garatu gabea zeukala lege aldetik. Sexu heziketak ikastetxeen erabakia izaten jarraitzen du. Praktikan LOMCEk ez du egoera gehiegi aldatzen, baina etorkizunean hazteko aukerak erabat murrizten ditu.

urte Parisen *ZiziSexuel* erakusketa zabaldu zuten lehenengoz, haurrei zuzendutako sexuari buruzko ekimen didaktiko interesgarria. Ia Europa osoa ibili du erakusketak eta berriki Parisera itzuli denean duela zazpi urte baino polemika handiagoa sortu du; hasieran zenbait elkarte katolikok eta kontserbadorek 8.000 sinadura jaso zituzten erakusketaren aurka eta itzuleran 40.000ra iritsi dira.

Eta hala ere, sexu heziketaren egoera hobe da Hego Euskal Herrikoarekin alderatuta, ofizialki behintzat. Espainiako Estatuan sexu heziketa 1990ean azaldu zen lehenengoz (LOGSE), Osasun Hezkuntza zehar lerroko ikasgaiaren baitan. 2006an LOEk ikasleek gizarte bizitzarako gaitasunak jasotzea proposatzen zuen, baina ez zituen sexu heziketari buruzko eduki espezifikoak jasotzen Herritartasunerako Hezkuntzan planteatutakoez harago. 2010eko sexu eta ugalketa osasunari buruzko lege organikoak dioenez, botere publikoek informazio eta heziketa afektibo-sexuala berrmatuko dute hezkuntza sistemaren eduki formal guztietan. Baina legearen alderdi hori ez da garatu eta orain LOMCEk sexu heziketaren arrasto urri guztiak ezabatzen ditu hezkuntza curriculumetik.

Ikastetxeen erabakiz

Ondorioz, Harremanak taldeko Olatz Berastegi sexologoaren arabera, “sexu heziketa ikastetxeen esku dago eta gehienetan beraiek erabakitzen dute prestakuntza hori nola

egin”. Sexu heziketa eskaintzea erabakitzen dutenek kanpoko sexologoak kontratatzen dituzte 6-8 orduko ikastaroak eskaintzeko. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hiru ikasturteetan, guztira, 30 ordu eman ohi dituzte eta, zenbaitetan, Lehen Hezkuntzan beste 6 ordu. Hortaz, derrigorrezko hezkuntza osoan 0-36 ordu bitartean eskaintzen zaizkio. Espainiako Estatuan 15 eta 24 urte arteko gazteei egindako inkestan, soilik %46k erantzun zuen ikastetxean sexuari buruzko informazioa jaso zuela. Hego Euskal Herriko datu espezifikorik ezean, Olatz Berastegik dio EAEko egoera Estatuko gainerako lurraldeetako baino hobe dela; Nafarroari dagokionez ez da hain baikorra.

Instituzioak ere beren hondar alea ekartzen hasi dira: “Gehienbat Gipuzkoan berdintasunaren gaiak indarra hartu du eta udal askok herriko eskolei ikastaroak eskaintzen dizkiete. Baina nagusiki berdintasunaren eta indarkeriaren prebentzioaren inguruan jarduteko”.

Eta oro har gero eta ikastetxe gehiagok erabakitzen du sexu heziketako programak kontratatzea. “Baina maiz egiten dutela esan ahal izateko kontratatzen gaituzte”, dio sexologoak, “eta batzuek ordu gutxitan eta are diru gutxiago ordainduta gauza asko ematea nahi dute”. Horrek konkurrentzia ekarri du, eta ez beti leiala. “Zenbaitek prezioak asko jaisten dituzte eta doako orduak eta bestelako eskaintza bereziak proposatzen dituzte. Horrek, azkenean, gure lanbideari eta, oro har, sexu hezkuntzari kalte egiten dio”.

Nahi eta ezin

Ikastetxeek sexologoei programak eskatu ohi dizkiete beren zerbitzuak kontratatzerakoan zer eduki emango dituzten jakiteko. Baina ordu kopuru mugatua izanik, “askotan urteazko gaietara mugatu behar dugu eta eduki

Gaixotasunen eta tratu txarren prebentzioan oinarritzen dira edukiak. Ondorioz, sexuaren inguruko mezu ezkorra helarazten zaie haur eta gazteei: arriskutsua dela, kontuz ibiltzeko...

«Bakoitza gustura bizi dadila emakume edo gizon gisa»

EFIGENIO AMEZUA (Palentzia, Espainia, 1941), Sexologian doktore da 1971tik. Titulua, jakina, Lovainan (Belgika) eskuratu zuen, oraindik ere Europa osoan sexologiako karrera eskaintzen duen unibertsitate bakarrean.

Espainiako Estatuko sexologiako profesionalen jardunaldi batzuetan Amezuak emandako hitzaldia- ren zati batzuk jaso ditugu:

“*Sexu heziketa*z ulertzen denaren egungo egoera orokorraren azterketak oinarritzko akats bat du eus- karri: giltzarri gisa *sexua* erabiltzea eta, hala, *sexual- tzat* jotzen den guztia *genitalari* buruzkoa da.

(...) Garrantzitsua da zuhaitzek ez dezatela basoa ikustea eragotzi eta, halaber, genitalaren zuhaitza basoarekin berarekin ez nahastea.

(...) Sexu heziketa *sexuen* heziketatzat dut. Sexue- na, pluralean eta ez sexuarena, singularrean, genita- laren sinonimo gisa. Sexu heziketa, niretzat, beste ezer baino lehen, subjektuen identitatearen heziketa da: bakoitza gustura sentitu eta bizi ahal dadila emakume eta gizon gisa. Horixe litzateke muina. Gainerakoa hortik abiatuta soilik uler daiteke. Inba- ditzten gaituen sexu heziketa delakoaren zati handi bat brikolaje hutsa da. Baliozko muin nagusitik etengabe arreta galaraztea. Huskeriatan behin eta berriz galtzea, nagusia hondakinen artean utzita.

Esan dut sexu heziketaren funtsezko erreferen- tzia subjektuen identitatea dela eta horri buruzko baieztapen batzuk nabarmendu nahi ditut. Lehenik, identitate hori subjektua maskulinozta edo femeni- notzat biografikoki –eta ez soilik biologikoki– egitu- ratzen duten sententzioen, emozioen, sentimenduen, afektuen bidez –hau da, bizi- penen bidez– taxutzen da. Horrek esan nahi du identi- tatea, halabeharrez, sexudu- na dela. Edo, bestela esanda, sexualitatea identitatearen beraren parte dela.

Bigarrenik, identitate horrek ezin du generikoa edo generokoa izan, indibiduala eta konkretua baizik, hau da, norbanakoarena. Norbana- koa espezie generiko edo gizarte baten parte izanik, rol, funtzio eta estereotipo generiko eta publikoak ego- kituko dizkiote; baina haren identitatea ez da eztabaida publikokoa, intimitatekoa baizik.

Eta, azkenik, identitate horren muin intimoenean

kokatzen da bere sexualitatea. Garbi dago intimita- tearen kutsu moral eta konduktualaz abusatu dela. Egiten dena izaerari eta bizipenei gailendu zaie. Praktikak (gehienetan genitalak edo perigenitalak, *sexuarekin* obsesionatutakoen irizpideei dagokien moduan) gehiegi nabarmendu dira eta sexu identita- tea intimitatez hustu da.

Zenbait sektoretan erro sexual hori saihesteko eta generoaren erroaz ordezkatzeko joera dago egun; alderdikoia izateaz gain, identitateentzat arris- kutsua ere izan daiteke hori.


Azaldutakoak adierazten duenez, sexu heziketak, hau da, sexuenak, ia ez du zerikusirik gaur egun inbaditzen gaituenarekin. Gaixotasunen preben- tzioa, haurdunaldiak saihestea eta antzekoak osasun edo gizarte ekintzak besterik ez dira, merituzkoak eta beharrezkoak, baina zerikusi gutxi dute subjek- tuen errealitate sexualarekin.

Beharbada horregatik sexu heziketa moden eta larrialdien arabera balantzaka dabilen efemeride gorabeheratsua besterik ez da. Heztea, funtsean, balioak aurkitzeko subjektuek dituzten gaitasunak bultzatzea, piztea eta akuilatzea baldin bada, horra hor balio bat: sexuen egintza. Eta balio horrekin bat egitea garrantzitsua bada, sexual abizena duena heziketak berez dagokion balio espezifiko horrekin bat egin beharko luke. Bestela, besterik gabe, osasun edo gizarte heziketaz hitz egin genezake.

(...) Heziketa ororen xedea maila igotzea da, zuhai- tzek basoa ikustea eragotzi ez dezaten. Informatzea testuinguruan kokatzea da. Eta genitalak subjektuen

osotasunean kokatzea, eta subjektuak beren sexueta- n kokatzea, sexu heziketa egitea da, hau da, sexuen heziketa. (...) Genitalak basoko zuhai- tzak dira, ez basoa bera”.

Hitzaldia 1995ean eman zuen Amezuak, hau da, duela ia 20 urte, baina haren hitzek ez dute gaurkotasunik galdu. 20 urtetan gizarteak eta hez- kuntza sistemak, oro har, ez dute diskurtso hori barnera- tu, eta sexu heziketaren hutsune nabarmenak bere horretan daude. Hala ere, sexologoak, denbora eta baliabide urriek uzten dieten neurrian, sexu heziketaren egungo zirrikitu estua baliat- zen hasiak dira *sexuen* hezi- keta, Amezuak aldarrikatzen duen hura, pixkanaka ikas- getan txertatzeko.



Sexu heziketa ugalketara, genitaleetara, gaixotasunen prebentziora... mugatu da orain arte. Sexologoak, Efigenio Amezua horien artean, sexu heziketaren ikuspegi zabalagoaren alde ari dira lanean.

asko alde batera uzten ditugu. Sexologoek garbi dugu zer landu nahi dugun, baina ez da erraza”.

Material didaktikoari dagokionez, gero eta iturri gehiago dago: sexologia elkarteak, telebista saioak, unibertsitateak... etengabe eduki didaktikoak sortzen ari dira. Baita bestelako elkarteak ere; 2014an, esaterako, Stee-Eilas sindikatuko LGBTI taldeak sexu aniztasuna lantzeko unitate didaktikoa prestatu du, eskoletatik homofobia uxatzea helburu. “Gero, noski, guk eman beharreko edukia adinaren arabera prestatu edo egokitzen ditugu”, dio Berastegik.

Arazoa ez dago sexuari buruzko ikas material espezifikotan, gainerako ikasgaietan erabiltzen direnetan baizik. Sexu heziketa oso kontzeptu zabala da (praktikan era mugatuan landu arren) eta ikasgai gehienak ukitzen ditu. Esaterako, “matematikako testuliburutik, problemak planteatzerakoan, generoari dagokionez oso adibide estereotipatu eta desagokiak erabiltzen dituzte maiz”. Hortaz, nahiz eta gero eta material berezi gehiago dagoen sexu ikastaroak eta tailerrak prestatzeko, gainerako ikasgaietako materialak, maiz, desagokiak dira sexu hezkuntzarako eta “irakasleak ere, oro har, ez daude horretarako behar bezala prestatuta”.

Suedian 7 eta 10 urte bitartean hasten dira sexu eskolak jasotzen eta derrigorrezko zikloak amaitu bitartean eskaintza zabaldu egiten da. Hainbat ikasgaitan txertatuta dute, ez soilik biologiari edo osasunari lotuta

Sexologoek prestakuntzari dagokionez, esan beharra dago sexologiako goi mailako ziklo osoa Europako unibertsitate bakarren eskaintzen dela, Lovainan (Belgika). Hau da, sexologiako karrera egin nahi duenak hara (edo Quebecera) joan behar duela. Bestela psikologia, pedagogia, antropologia edo dena delako karrera egin eta gradu ondoko ikasketak erantsita jasotzen dute prestakuntza sexologoek. Esan beharra dago, gradu ondoko ikasketa horien aukera gero eta zabalagoa eta hobe dela, eta ondorioz eskoletan sexu heziketa eskaintzen dutenen prestakuntza, sortzen dituzten materialak... ere hobetzen ari direla.

Eredua iristeko dago

Hego Euskal Herrian sexu heziketaren egoera kaskarra dela ikusi dugu. Ipar Euskal

Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio




SEXU HEZIKETA

Herrian ere ez da askoz hobeia. Orduan, ba al da herrialderik sexu hezkuntza eredugarria eskaintzen duenik? Alde handia dago herrialde batetik bestera. Portugalen, esaterako, biologiari lotutako curriculumaren baitan dago nolabait. Finlandian ere gai sexualak biologiari lotuta daude Lehen Hezkuntzan, eta aurrerago edukiak zabaldu arren, osasun gaitara mugatuta daude. Alemanian derrigorrezko sexu heziketak eduki zabalagoak jasotzen ditu eta zenbait elkarte erlijiosok horren aurka egindako salaketak atzera bota zituen, lehenik Alemaniako Auzitegi Konstituzionalak eta, ondoren, 2011n, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak.

Sexu heziketa programarik egokiena aurkitzeko Suediara jo beharko genuke. Eskandinaviako herrialdeko eskola hezkuntzan sexu heziketa 1956tik da derrigorrezkoa. Haurrak 7 eta 10 urte bitartean hasten dira sexu eskolak jasotzen eta derrigorrezko zikloak amaitu bitartean eskaintza zabaldu egiten da. Hainbat ikasgaitan txertatuta dute sexu heziketa, eta ez soilik biologiari edo osasun kontuei lotuta; historian ere sexuaren gaia lantzen dute.

Alde handia dago herrialde batetik bestera. Baina alde are handiagoa sexu heziketa gaur egun denaren eta izan beharko lukeenaren artean. Sexologoek sexuen hezkuntza baitute jomuga. Gaur egun, eskaera mugatuak hala aginduta, gaixotasunen nahiz tratatu txarren prebentzioan edo praktika sexualetan oinarritzen dira edukiak. Ondorioz, sexologoak dio: "Sexuaren inguruko mezu ezkorra helarazten zaie haur eta gazteei: arriskutsua dela, kontuz ibili behar dutela...". Jakina, lege babesa lortuta, ordu kopurua handituta, material didaktikoak (guztia) hobetuta eta irakasleak ondo prestatuta, aurrerapauso nabarmenak eman go lirakeke.

Baina gakoa oinarrian dago, sexuaren kontzeptu hertsia hori aldatzean datza.



Gero eta material didaktiko gehiago eta hobeia dago eskuragarri sexu heziketarako. Arazoa ez da ikastaroetarako material espezifiko egokia izatea, gainerako ikasgaietako materialetan lantzen den sexu ikuspegi desegokia baizik.

Sexuen hezkuntza kontzeptu osoago horrek utopikoa dirudi, baina Olatz Berastegik argi pixka bat erantsi dio sexu heziketaren argazki ilunari: "Mugak muga, azken urteetan sexuen hezkuntza pixkanaka zabaltzea lortu dugu, neskez eta mutilez hitz egiten hasi gara, identitateaz, gure arteko harremanez". ■



Manttangorri

ikasi, hezi, ezaqutu, dibertitu, amets egin... JOLASTUZ

- Adin guztietarako kalitatezko joku eta jostailu hezitzaileak ditugu.
- Pardelezko-opilak, joku kooperatiboak, estrategikoak, famili artekoak, kartak, puzzleak, ibilgailuak....
- Atal berria: "Emakumearen txokoa".

Herrikobarra, 19
20500 ZARAUTZ
☎ 943 83 11 87 / 650 442 437
www.manttangorri.com



Jarraitu gure berriak:

